

IRISGARRITASUN GIDA

HAUTESKUNDE OROKORRAK

2015EKO ABENDUAREN 20A

BERTSIO IRAKURTERRAZA

Triptiko honen egileak:

- **Barne Arazoetarako Ministerioa**
- eta **Desgaitasuna Artatzeko Bulegoa,**
Desgaitasunaren Kontseilu Nazionala. Osasun Ministerioa. Gizarte Zerbitzuak eta Berdintasuna

Hautesleku eta hauteskunde mahai irisgarriak

Hauteslekuak gune irisgarri bat izango dute, hauteskunde mahaitik hurbil, hautesleak boto paperak pribatuan aukeratu ahal ditzan,

Hautesleek autonomiaz bozkatzeko modua izan dezaten arduratuko dira mahaietako kideak,

Hauteskunde mahaietako kideak

- Hauteskunde mahaiko kide izendatzen diren pertsonak jakinarazpen bat eta eskuliburu bat jasotzen dituzte,
- Irisgarritasunari buruzko eskaera edo kexa guztiak Eskualdeko Hauteskunde Batzordera bidaliko dira,
- Gorrek, jakinarazpena jaso ondoren, 7 egun dituzte zeinu hizkuntzazko doako interprete zerbitzua eskatzeko, edo indukzio begizta bat, behar dutenaren arabera. Idatziaz eskatu behar zaio Eskualdeko Hauteskunde Batzordeari,

Braillez irakurtzen dakiten itsuentzako bozketa irisgarriaren prozedura

Braillez dakiten hautesle itsuek Barne Arazoetarako Ministerioaren 900150000 zenbakira deituta eska dezakete prozedura, urriaren 27tik azaroaren 23 arte, bihar barne. Bozketa presentzialeko prozedura hau postazko botoarekin bateragarria da,

Ohar garrantzitsua: itsuentzako bozketa irisgarriaren maletina hauteskundemahaian ematen da

Itsu batek prozedura eskatu bazuen, hauteskunde egunean hauek egongo dira hauteskunde mahaian:

1. **Zerrenda bat**, eskatzaileen nortasun-agiri zenbakiena. Maletina zerrenda horretan daudenei baino ez zaie emango hauteskunde mahaian,
2. **kit/maletín bana** zerrendakoentzat, barruan hau duena:
 - Maletinaren barruan dagoen dokumentazioa nola erabili azaltzen duen braillezko gida bat,
 - Botoa emateko gutun-azal normal bi: bat Kongresurako eta beste bat Senaturako,
 - Gutun-azal handi bat, Kongresuko hauteskundeetarako hautagai zerrenden izena (tintaz eta braillez etiketatuta) duten gutun-azalak. Gutun-azal bakoitzaren barruan dagokion boto papera (estandarra) egongo da,
 - Zerrenda bat (braillez), Senaturako hautagaien izenekin,
 - Kartoi mehezko txantilo bat (braillez), barruan Senatuko hauteskundeetarako boto papera (estandarra) edukiko duena,

Botoa eman ondoren kit hori eta soberako materiala berarekin eramatea gomendatzen zaio hautesleari, emandako botoaren sekretua mantentzeko,

Gomendio orokorak

1. Jokatu naturaltasunez eta begirunez,

Desgaitasuna duten pertsonak autonomo eta burujabeak dira, eta hala tratatu behar dira,

2. Galdetu lagundu baino lehen,

Egin aurretik informa zaitez nola lagundu dezakezun, eta zuzendu zakizkio beti desgaitasuna duen pertsonari ez bere laguntzaileari,

3. Erabili zentzua,

Gorabehera bat baduzu eta nola jokatu ez badakizu, jo ezazu mahaiburuagana edo Administrazioak hauteslekuan duen ordezkariagana. Ilarak sortzen badira, mugigaitasuna murriztuta dutenek botoa lehenengo ematea gomendatzen da,

4. Zuhur jokatu kontaktu fisikoarekin,

Mugigaitasuna murriztuta duten pertsona batzuek euren besoak behar dituzte orekari eusteko, beraz saiatu ez ukitzen,

5. Erraztu hauteslekuan sartzea eta hauteskunde mahairainoko ibilbidea,

Irisgarritasunari buruzco araudia 2015eko hauteskunde orokorretan

- Hauteskunde araubide orokorraren 5/1985 Lege Organikoaren 87 artikulua,
- **Bizitza Politikoan eta Hauteskunde Prozesuetan Parte Hartzeko Oinarrizko Baldintzei** buruzko Arautegia, 422/2011 Errege Dekretua, martxoaren 25ekoa,
- Bozketa irisgarriaren prozedurari buruzko Errege Dekretua, **dokumentazio osagarria braillez** duena, 1612/2007 Errege Dekretua, abenduaren 7koa.

Informazioa eta konsultak

www.infoelectoral.interior.es

www.administracion.gob.es

Telefonia 060

Boto irisgarria eskatzeko
telefonoa:

900 150 000, astelehenetik
ostiralera: 09:00-17:30 eta
larunbatetan: 09:00-14:00

DESGAITASUNA DUTEN BOTO-EMAILEEKIN TRATATZEKO GOMENDIOAK

1. Jokatu naturaltasunez eta begirunez,
2. Galdetu lagundu baino lehen,
3. Erabili zentzua,
4. Zuhur ibili kontaktu fisikoarekin,
5. Erraztu hauteslekuan sartzea eta hauteskunde mahairainoko ibilbidea.